Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Jose Luis Pagoaga Soraluze*

## *Mutriku, Gipuzkoa (1943-2015)*

*Jose Luis Pagoaga*

Aurkibidea

## Biografia

Jose Luis Pagoaga

Olatz auzoko Apategi Zahar baserrian jaio zen, 10 anai-arrebatan bigarrena. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Larruskaingoa (Markina-Xemein). Auzoan bertan ibili zen eskolan. Baserriko bizimoduaren inguruko azalpen ugari ematen ditu.

## Zintak

### MUT-024

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Data**: 2011-11-19
- **Iraupena**: 72 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Oruesagasti, Ainitze

**MUT-025**

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Nerea
- **Data**: 2011-11-19
- **Iraupena**: 65 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Oruesagasti, Ainitze

# Pasarteak

## 1. Apategi Zahar eta gurasoak

- **Erref**: MUT-024/003
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:05:27. **Bukatu**: 00:06:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Jose Luisen aitan zen Apategi Zahar baserrikoan jaio zen, baina aiton-amonak kaletarrak ziren. Aitona Ameriketan egona zen, eta, gosete garaian, han egindako diruarekin baserria erosi zuen. Jose Luisen ama, berriz, Markina-Xemeingoa zen.

## 2. Auzokoekin harremana

- **Erref**: MUT-024/004
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:06:05. **Bukatu**: 00:07:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
Harreman ona zuten auzokoen artean. Elkarri gauzak eskatzen zizkioten. Umetako pasadizo bat kontatzen du.

## 3. Ogia

- **Erref**: MUT-024/005
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:07:32. **Bukatu**: 00:08:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
Astean asteko ogia egin ohi zen. Gehinetan larunbatetan egiten zen labesua. Ogi gabe geldituz gero, auzokoei eskatzen zien.

## 4. Etxeko zereginetan umetatik

- **Erref**: MUT-024/006
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:08:24. **Bukatu**: 00:10:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Denbora gutxi pasa zuen Jose Luisek eskolan. Anai-arrebetan zaharrenetakoa zen, eta etxeko lanetan lagun behar izaten zuen: anai-arrebak zaindu, herrira joaten zen salerosketara, bazkaria prestatu...

## 5. Jatekoa

- **Erref**: MUT-024/007
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:10:02. **Bukatu**: 00:11:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
Astean zehar etxeko babarruna, baba gorria edo zuria, jaten zuten. Igandetan, berriz, garbantzuak. Taloa, morokila eta esnea ere ez zen falta izaten. Taloa eta morokila egiteko irina fin-fina izaten zen; bahean pasatzen zuten.

## 6. Garia

- **Erref**: MUT-024/008
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:11:59. **Bukatu**: 00:13:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

**Laburpena**:
Garia. Biltzen zuten gariaren erdia edo gehiago entregatu egin behar izaten zuten. Garia ezkutatzen zuten, gero faltan ez izateko; Guardia Zibila ibiltzen zen baserriak miatzen. Udazkenean, goiz-garia egin izan zuten (San Joanak alderako heldu ohi zen goiz-garia, bestea baino lehenago).

## 7. Guardia Zibila, mikeleteak eta jatekoa

- **Erref**: MUT-024/009
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:13:58. **Bukatu**: 00:16:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Polizia

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena**:
Guardia Zibilek kontrolak egoten zituzten hainbat tokitan, eta jatekoa harrapatuz gero kendu egiten zuten. Baserriak miatzen zituzten. Mikeleteekin eta Guardia Zibilarekin zer harreman zuten kontatzen du.

## 8. Gari-lanak

- **Erref**: MUT-024/010
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:16:38. **Bukatu**: 00:20:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

**Laburpena**:
Lehen, garia eskuz jotzen zuten; gero etorri ziren matxakea eta beste tresna batzuk. Garia igitaiarekin ebatzen zuten. Garia ebatzeko trebezia eta gorabeherak ditu hizpide.

## 9. Olioa, urrea bezala

- **Erref**: MUT-024/012
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:21:34. **Bukatu**: 00:24:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena**:
Arroz-esnea, flana... egiten ziren etxean, baina neurrian arrautzak saldu egiten baiziren. Olioa garestia zen. Lapikoko jakiak prestatzen urdaia erabili ohi zen. Etxean hiltzen ziren animalien gantzak gorde egiten ziren, jakiak prestatzerakoan erabiltzeko.

## 10. Txerrikia eta gazun-aska

- **Erref**: MUT-024/013
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:24:10. **Bukatu**: 00:25:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
Txerrikia kontserbatzeko gazun-askan gordetzen zuten. Gazun-aska gaztain-edo haritz-egurrarez egindako kutxa bat izaten zen.

## 11. Denetik egin behar

- **Erref**: MUT-024/014
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:25:33. **Bukatu**: 00:26:18

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Baserritarrek denetik egiten zuten: arotz-lanak (gazun-askak, gurdiak... etxean egin ohi ziren), otarrak... Elkarri erakusten zioten.

## 12. Egurra eta arotz-lanak

- **Erref**: MUT-024/015
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:26:18. **Bukatu**: 00:27:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Arotzak
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Lehen, ilargiari asko begiratzen zitzaion baserriko kontuetarako (ilargiaren eragina egurra botatzerako orduan). Baserrietan egurra botatzeko erraminta falta izaten zen. Aizkora, "zepilloa" (eskuila), "galapia", zerrota... erabiltzen ziren arotz-lanerako.

## 13. Auzolana I

- **Erref**: MUT-024/016
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:27:57. **Bukatu**: 00:29:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
Gari-lanak, arto-zuriketa... auzolanean egin ohi ziren. Auzokoei lanerako deia luzatzen zitzaien. Arto-zuriketa eguraldi txarra zenean, gauez, egin ohi zen, "juerga moduan". Nolako giroa sortzen zen kontatzen du.

## 14. Aita, soinujolea

- **Erref**: MUT-024/017
- **Iraupena**: 0:00:23. **Hasi**: 00:29:03. **Bukatu**: 00:29:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

**Laburpena**:
Jose Luisen aitak bertsotarako zaletasuna zuen, eta soinua ere jotzen zuen. Santa Eskean ere ibili ohi zen.

## 15. Auzolana II

- **Erref**: MUT-024/018
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:29:26. **Bukatu**: 00:30:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
Auzolanean nolako giroa sortzen zen kontatzen du. Pozik egoten ziren auzokoekin etxean biltzen zirenean. Garo-ebatea eta -batzea ere auzolanean egiten zen.

## 16. Simaurra, ilbeheran

- **Erref**: MUT-024/019
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:30:40. **Bukatu**: 00:31:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

**Laburpena**:
Garoa garrantzitsua izaten zen simaurra egiteko. Simaur gutxi izaten zen, eta "relikia bezalaxe" zaintzen zen. Simaurra kortan pilatu eta garoa botatzen zioten gainean. Simaurra ilbeheran ateratzen zen.

## 17. Olatz aldeko lurrak

- **Erref**: MUT-024/020
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:31:57. **Bukatu**: 00:32:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

**Laburpena**:
Olazko lurrak "sendoak" dira, eta garia nahikoa hazten zen "gehiegi askotan". Ez zen komeni izaten garia gora gehiegi hazterik, heldu aurretik denborale batekin etzan egin zitekeelako.

## 18. Garo-metak eta tximistak

- **Erref**: MUT-024/021
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:32:48. **Bukatu**: 00:35:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

**Laburpena**:
Garoa urrian ebakitzen zen. Etxe bueltan, larrainean, egiten zituzten garo-metak. Metaren batek su hartu izan die inoiz: "tximista amorratua da metan sartzen". Sua sortzen bazen kanpaia jotzen zen auzokoei laguntza eskatzeko.

## 19. Auzoko kanpai-jotzailea

- **Erref**: MUT-024/022
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:35:22. **Bukatu**: 00:36:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

**Laburpena**:
Olatzen emakume batek jotzen zituen kanpaiak. Etxetik kable bat zuen jarria kanpaia jotzeko. Hamabietan, angelusa eta sua zenean jo ohi zuen kanpaia. Sua non piztu zen ikusten ez zenean, jendea eliza ingurura hurbiltzen zen, eta emakume hark esaten zien nora joan behar zuten.

## 20. Akolito

- **Erref**: MUT-024/023
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:36:26. **Bukatu**: 00:38:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena**:
Mezara joatea derrigorra zen. Bi meza egiten ziren Olatzen. Jose Luis akolito ibili zen zazpi urtean. Urte batean auzoko bi baserrik izaten zuten Olazko elizaren ardura (baserrien artean binaka txandatu ohi ziren), eta derrigorra zen ardura tokatzen zitzaion baserrietako seme-alabaren batek akolito lanak egitea.

## 21. Apaizak

- **Erref**: MUT-024/025
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:38:31. **Bukatu**: 00:39:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena**:
Apaiza herritik oinez joan ohi zen Olatzera meza ematera. Don Peio, Don Alejo eta Don Rafael apaizak ezagutu zituen Jose Luisek.

## 22. Uztaiarekin eta pilotan

- **Erref**: MUT-024/026
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:39:44. **Bukatu**: 00:40:39

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena**:
Umetako jolasak: uztaia barila batekin eramaten... Elizpean ibiltzen ziren pilotan.

## 23. Errekara, siesta garaian

- **Erref**: MUT-024/027
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:40:39. **Bukatu**: 00:41:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

**Laburpena**:
Ez zien uzten errekara joaten, baina siestako denbora aprobetxatzen zuten errekara joateko. Aldian behin bakarrik bainatzen ziren putzu-zuloetan.

## 24. Arrateko erromeriara

- **Erref**: MUT-024/029
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:42:19. **Bukatu**: 00:44:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
Erromeriak. Gurasoekin asto gainean Arratera joaten zirela kontatzen du. Bidean auzokoak gehitzen joaten ziren. Jose Luisen aitak soinua jotzen zuen. Arraten mahatsa erosten zutela gogoratzen du.

## 25. Ama

- **Erref**: MUT-024/031
- **Iraupena**: 0:03:59. **Hasi**: 00:46:01. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena**:
Amak josten zien arropa: lan asko egiten zuen etxean. Gerra aurretik Ondarroan zerbitzari edo sukaldari lanetan ibilia zen ama, eta sukaldari oso ona zela dio.

## 26. Etxeko lanak

- **Erref**: MUT-024/033
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:50:34. **Bukatu**: 00:52:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

**Laburpena**:
Arreba 12 urterekin hasi zen sukaldari lanetan jatetxe batean. Ama hil zenean gazteak ziren, eta etxeko lanak nola egiten zituzten azaltzen du: arreba batek jatekoa prestatzen zuen, besteak arropak prestatzen zituen... Jose Luis 16 urterekin lantegian hasi zen lanean.

## 27. Auzo-eskola

- **Erref**: MUT-024/035
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:52:46. **Bukatu**: 00:53:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
Hiru-lau urte zituela "Bellotei" baserriko eskolara joaten zen. Han, Mutrikuko emakume bat zuten maistra. Aritza baserriko eskolan ere ibili zen denbora batez. Gero, baserritarrek Olazko eskola egin zuten, eta hara joaten zen Jose Luis.

## 28. Maistrak

- **Erref**: MUT-024/036
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:53:30. **Bukatu**: 00:54:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena**:
Baserritarrek Olazko eskola egin zuten, eta estatua hasi zen maistrak bidaltzen hara. Maistrak erdaldunak ziren, eta baserrietan egoten ziren apopilo. Jose Luisen etxean Salamancako maistra bat eduki zuten apopilo lau urtez.

## 29. Katona

- **Erref**: MUT-024/039
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:56:33. **Bukatu**: 00:58:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

**Laburpena**:
Eskolako kontuak. Kantonarekin ikasten zuten (hiru liburu izaten ziren). Liburuak ondo zaindu behar izaten ziren hurrengo anaia edo arrebak erabil zezan.

## 30. Ibiriko gau-eskola

- **Erref**: MUT-024/040
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:58:06. **Bukatu**: 01:00:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena**:
Ibiriko maistrari buruz hitz egiten du. Maistra karlista omen zen, eta umeei Cara al Sol abesarazten zien. 14 urterekin Ibiriko gau-eskolara joaten zen Jose Luis. Negu partean, egunez lan egiten zuen baserrian, eta, gero, gau-eskolara joaten zen. Ilundutakoan bueltatzen ziren etxera; ez zuten beldurrik izaten.

## 31. Jentilak

- **Erref**: MUT-024/042
- **Iraupena**: 0:03:48. **Hasi**: 01:02:21. **Bukatu**: 01:06:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena**:
Etxean jentilei buruz entzundako istorioak kontatzen ditu: nolakoak ziren, non bizi ziren... Jose Luisen baserriko lurren kontran dago Jentiletxea. Jose Luisen aitonak Jentiletxean jendea bizitzen ezagutu omen zuen. Jentiletxe bueltako garoa ez zuten mozten.

## 32. Jentiletxera sartu

- **Erref**: MUT-024/043
- **Iraupena**: 0:05:24. **Hasi**: 01:06:09. **Bukatu**: 01:11:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena**:
Gaztetan, anaia bat eta Jose Luis Jentiletxean sartu ziren. Kobazulo barruan zeudela, linterna itzali eta bata besteagandik urrundu zirela kontatzen du.

Kobazulotik ateratzen denbora asko pasa zuten. Arropa eta belaun eta besoak urratu zituzten leizeko hormen kontra.

## 33. Isasimendiko erromeriak

- **Erref**: MUT-025/002
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:02:53. **Bukatu**: 00:05:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
Olatzen, Isasimendikoan, erromeria egiten zen jaiero. Eta urteko beste lau egunetan (Pazku erdiko, San Esteban...) erromeria handiagoa izaten zen. Itziartik, Larruskaindik, Berriatuatik... joaten zen jendea egun horietan. Mandioan zegoen dantzalekua, eta hainbeste jende biltzen zen bertan, kortatik mandioa puntalatu omen zuten behin lau-bost lagunek.

## 34. Neska-laguntzearen inguruko kontuak

- **Erref**: MUT-025/003
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:05:55. **Bukatu**: 00:08:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
Neska-laguntzera joandako pasadizoak kontatzen ditu. Auzoko erromeriara mutil gehiago joaten ziren neskak baino. Kanpoko mutilak konpetentzia ziren. Neska-laguntzatik erromeriara bueltatzen ziren kanpoko mutilei harriak edo sagarrak botatzen zizkien.

## 35. Neska-laguntzera, etxetik urruti

- **Erref**: MUT-025/004
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:08:21. **Bukatu**: 00:12:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
Neska-laguntzera joandako pasadizoak kontatzen ditu. 15 urterako hasten ziren neska-laguntzen. San Inaziotan Larruskaingo familiarengana joateko ohitura zuten.

## 36. Santa Eufemiara, orkatila bihurrituta

- **Erref**: MUT-025/005
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:12:34. **Bukatu**: 00:16:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
Inguruko mendi-erromeria eta jai esanguratsuak: Arrate, Santa Eufemia, Santa Katalina eta Itziarko jaiak. Orkatila bihurrituta Santa Eufemiako erromeriara joan zenekoa kontatzen du. 18 urte zituen orduan.

## 37. Santa Eufemiako erromeria

- **Erref**: MUT-025/006
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:16:12. **Bukatu**: 00:19:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
Lau erromeria leku zeuden Santa Eufemian, eta inoiz bost ere egon ziren. Erromerian dantza egiteko mutilek ordaindu egin behar izaten zuten. Erromeriako antolatzaileek ateratzen zuten diruari buruzko azalpenak.

## 38. Santa Katalinako erromeria

- **Erref**: MUT-025/007
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:19:00. **Bukatu**: 00:20:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
San Juan Egunean Santa Katalinako erromeriara joaten ziren. Urtegarai horretan, Madril aldetik "femeninetako" neskak joaten ziren Debara hilabete inguru pasatzera, eta haiekin elkartzen ziren erromerian.

## 39. Dantzarako zaletasuna

- **Erref**: MUT-025/008
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:20:44. **Bukatu**: 00:23:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Gazterik hasi zen erromerietara joaten. Dantzarako zaletasun handia izan du Jose Luisek. Erromerietako ohiturak: lehenengo, neskak hasten ziren dantzan, eta mutilak begira egoten ziren; eta, gero, mutilak joaten ziren dantza-eskean. Jose Luis eta bere lagun bati hasiera samarrean joaten ziren dantza eskatzera,

"aukera gehien orduan egoten zen eta!". Trikitia eta dantza lotua. "Arrimatzea": gaizki ikusia zegoen. Gurasoak dantzaldiak zaintzen egoten ziren. Gaizki ikusita zeuden arrimatuta dantza egiten zuten neskak.

## 40. "Arrimatuta" dantza egitea

- **Erref**: MUT-025/009
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:23:50. **Bukatu**: 00:26:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
Erromeriak. "Arrimatzea": gaizki ikusia zegoen. Toki batzuetan gurasoak dantzaldiak zaintzen egoten ziren. Gaizki ikusita zeuden "arrimatuta" dantza egiten zuten neskak.

## 41. Aitona, artzain ibilia Ameriketan

- **Erref**: MUT-025/010
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:26:32. **Bukatu**: 00:30:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskal Herriarekin harremana
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan
- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia
- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak

**Laburpena**:
Jose Luisen aitona harrobian ibili zen lanean, eta, harrobian lanak behera egin zuenean, Ameriketara joan zen artzain. Ordurako ezkonduta zegoen, eta lau seme-alaba zituen. Bederatzi urte egin zituen Ameriketan. Pagoaga familiako senide mordoa joan omen zen Ameriketara.

## 42. Galbahegile galiziarrak

- **Erref**: MUT-025/012
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:31:08. **Bukatu**: 00:35:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

**Laburpena**:
"Bahieroak" esaten zien. Galiziatik etortzen ziren, eta baserriz baserri joaten ziren galbaheak konpontzera jan eta lo egiteko leku truke. Galbahe berriak ere saltzen zituzten. Trasteak mandoan hartuta ibiltzen ziren. Garia egiteari utzi zitzaionean utzi zioten etortzeari. Galbahe motak aipatzen ditu.

## 43. "Bahiero"ei buruzko kontuak

- **Erref**: MUT-025/013
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:35:53. **Bukatu**: 00:38:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena**:
Ourense aldekoak izaten ziren "bahieroak" (galbahegileak). Galbahegileen janzkera: "txapelak zikinak gogortuta ekartzen zituzten" dio Jose Luisek. Ez zuten aldatzeko arroparik izaten. Baserriren batean gaua pasatzen geratzen zirenean, bertan garbitu ohi zizkien arropak hurrengo egunean berriz jantzi ahal izateko.

## 44. Karea nola egiten den

- **Erref**: MUT-025/015
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:42:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

**Laburpena**:
Kare bizia erabiltzen zuten lurra ongarritzeko. Beti ezagutu du karobi zuloa etxean. Aitarekin egiten zuten karea. Karobia harriz kargatzeak duen zailtasunari buruz hitz egiten du. Bolbora kartutxoak edukitzen zituzten baserrian. Bolbora erabiltzen zuten harria ateratzeko.

## 45. Karea: sororako eta etxeak zuritzeko

- **Erref**: MUT-025/016
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:42:46. **Bukatu**: 00:43:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

**Laburpena**:
Karea bi gauzetarako erabiltzen zen: soroak ongarritzeko eta etxeak zuritzeko. Urtean bitan margatzen ziren karez baserriak.

## 46. Lurra lantzeari buruzko azalpenak

- **Erref**: MUT-025/017
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:43:37. **Bukatu**: 00:47:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

**Laburpena**:
Lurrak gaixotzea: gehiegi esplotatzeak eta simaur asko botatzeak eragin dezake, besteak beste. Mamorruak. Simaurra botatzeari buruz hitz egiten du: simaur zaharra hobea. Belar txarrak. Kanpotik ekarritako landareak. Pozoia. Lurra ongarritzeko, karea botatzen da neguan eta udaberrian.

## 47. Mamorruak eta fruitua

- **Erref**: MUT-025/018
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:47:27. **Bukatu**: 00:48:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

**Laburpena**:
Patataren mamorrua eta gorrinaren kontrako botika aipatzen ditu. Mamorruek eta txoriek jandako fruitua, seinale ona dela dio Jose Luisek.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-11-14*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com